



## ITSARAZ PARKEAK GURE HERRIAN ETA LURRETAN ERAGINGO DITUEN KALTEEKIN

### EZ GAUDE ADOS

Aramaioko herritarren hitza aintzat hartua izan dadin, egin bat mozioarekin eta sinatu!



**SINADURA BILKETA: ABENDUAREN 1etik URTARRILAREN 10era arte.**

**Sinatzeko:** paperaren beste aldeko jarraibideei kasu egin eta zure datuekin eta sinadurarekin bete

Sinadurak **NON** entregatu:



**Udaletxean**  
(bugoan edo buzoian)



**Kultur etxean**  
(liburutegian)



**Oletako herriko tabernan**



**Ostiraletan, 19:00-21:00: sinadurak biltzeko MAHAIA jarriko da Goiko taberna zenaren aurrean.**

**ABENDUAREN 13, arratsaldeko 18:30tan KULTURA ETXEAN:**

**HITZALDI-SOLASALDIA, INGEOTYC-eko teknikariek zuzenduta**  
**(udalaren alegazioak prestatu dituen ingeniari-tza aholkularitza)**

*\*sinadurak biltzeko mahaia ere jarriko da*

### EZ GAUDE ADOS

Aramaioko Udaltzaria osatzen dugun kideok kezkatuta gaude Itsaraz parke eolikoak gure herrian izango duen eraginaz, eta, hori dela-eta, proiektuak aurrera egitearen gaineko desadostasuna erakutsi nahi dugu UDAL MOZIO honen bidez.

Itsaraz parkean 172 metroko diametroa eta 201 metroko altuera izango luketen 8 aerosorgailu eraiki nahi dira, eta horietatik 7 egongo lirakeke Aramaio lurretan. Haizerrotekin batera, ebakuazio-lerro bat ireki nahi dute Abadiñoraino, 15,6 kilometrokoa eta lerro horretako 31 dorre ere Aramaio lurretan egongo lirakeke.

Itsaraz parkearen proiektuaren prozesuan egon diren argi ilunak mesfidantza eragin dute herritarren artean, eta zer esanik ez, tankera honetako makroproiektuek gure ingurunean duten inpaktuen gainean kezka handia dago Aramaion. Horrela baieztatu du Aztikerrek gidatutako prozesuak, Aramaio herritarren iritzia jasotzeko burutu denak, eta Udal Gobernuak aintzat hartu nahi izan duenak, parkearen aurrean posizionatzeko.

Testuingurua aintzat hartuta, Aramaio Udalak alegazioak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzaren (LPS-PTSari) eta Espainiako Gobernuaren ordezkariaren (Itsaraz proiektuari) aurrean, honako eremuetan laburbiltzen direnak:

1. Atzera bueltarik ez duten ingurumen kalteak.
2. Aramaio herritarren osasunean eragina.
3. Kokapenari buruzko alegazioak, zehazki beste lurralde plangintzekin dituen kontraesanak.
4. Udal hirigintzan bateraezintasunak.
5. Paisaiaren suntsipena.

Itsaraz parkeak aramaioarron ongizatean izango duen eragina kontuan hartuta, UDAL MOZIO honen bidez proiektuak Udaltzari eragiten digun kezka eta desadostasuna argitan jarri nahi dugu, eta proiektuaren garapenean arduradun direnei eskatzen diegu gelditu dezatela Itsaraz parkearen egikaritza.

**Nik, aramaioar herritar bezala, Udalak onartutako Moxioarekin bat egin eta nirea atxikimendua adierazi nahi dut Itsaraz parke eolikoaren proiektua gelditu dezaten.**

DATUAK	SINADURA
Izen abizenak: _____	
NAN zenbakia: _____	
Jaiotze data: ____/____/____	

*\*Letra larriz idatzi*